

On-egiteak

Ik. Egintza onak.

Onbideratzea

Ik. Bihotz-berrikuntza.

Ondasunak

Zuzeneko adieraz, gauza materialak dira, gizon-emakumeen premiaren bat betetzeko baliotutakoak eta jabetzakoak izan daitezkeenak. Baina Elizako hizkerak altxor izpiritualak eta ondasunak izpiritualak ere hitz egin ohi du.

Aberastasuna pobretasunari begira definitzen da, eta horregatik konnotazio etikosoziala du funtsean, erlijiozkoak gain.

Ondasunak kontzeptua, berriz, ez da berez korrelatiboa, baina ez da konturik gabekoa, balore moral eta erlijiozkoel begira.

Bizitzeko beharrezkoak diren neurrian ontzat ematen dituzte ondasunak erlijio guztiek; hortik aurrera elkarrengandik aldendu egiten dira, ordea: ondasuneko erosotasuna (eta aberastasuna ere bai) bilatzen dutenak, batetik; eta pobretasuna, txirotasuna eta ondasunei uko egitea predikatzen dutenak, bestetik.

Azken joera hori (uko egitearena) erlijio handi guztietan agertzen da nolabait, batez ere *monakotzaren bidez. Joera horren oinarria honetan datza: *munduaren eta horko ondasunen lokarrietatik askatzea eta ateratzea gisa ulertzen dute *salbamena: ondasunak traba lirateke horretarako.

Jainkoa munduaren jaun edota sortzailetzat daukaten erlijioek --eta bereziki *kreazioa sinesten duen kristautasunak-- ondasunei buruz duten irakatsia lau puntu hauetara laburbil daiteke.

a) Jainkoagandik datoz ondasunak; horregatik, berez onak eta estimagarriak dira. Horien erosotasuna (nahiz ugaritasuna) Jainkoaren dohaina da. Baina ihes egin behar da horiek jainkotzetik edota horiei erabateko balioa ematetik. *Idolatriatzat jotzen dute hori. Ik. Dirua; Mamon.

b) Gizon-emakumeak munduko ondasunen administrariak dira, Jainko jabearen izenean.

c) Denentzako dira munduko ondasunak. Horregatik batzuren aberastasuna, bestetzuren pobretasunaren bizkarretik dena, gaitzetsi egiten dute, eta *limosna, eskuzabalatasuna eta *justizia predikatzen.

Ik. Pobretasuna/Aberastasuna.

Onezko damua

Ik. Kontrizioa.

Ongi gorena

Jainkoari bakarrik ematen zaion deitura edo izena. Teologiaren arabera, ontasun erabatekoa Jainkoari bakarrik dagokio. Ongiarekin berdintzen da bera, edozein izakiren gurari, desira edo joera behinenak eta garaienak bete ditzakeena.

Ik. Ongia eta gaizkia; Jainkoaren bikaintasunak.

Ongia eta gaizkia

Munduaren eta gizakiaren sorreran eta historian diharduten bi printzipio edo sorburu elkarren kontrakoak. Filosofia dualistak eta erlijioetan bereziki *manikeismoak eta *zoroastrismoak irakasten duten metafisika eta etika bi sorburuon izatean oinarritzen da.

Ongiaren eta gaizkiaren zuhaitza

Ik. Zuhaitza.

Onginahia

Ik. Maitasuna.

Ontzea

Ik. Bihotz-berrikuntza.

Ontzi santuak

Erlijio-fenomenologian orokorki *oparitarako edo beselako erritotarako erabiltzen dituztenak.

Kristautasunari dagokionez, eukaristia ospatzeko eta Kristoren gorputz-odolak bertan ipintzeko eta gordetzeko erabiltzen dituzten edukitzaile baliotsuak: *kaliza, patena, kopioia, etab.

Ik. Ziborioa.

Opalkuntza

Ik. Oparigintza; Sagarapena, 1; Eskaintza, 1 eta 2.

Oparia

Sin.: Sakrifizioa

Erlijioaren fenomenologian *erritorik berezietakoa da Jainkoari, jainkozko izakiren bati (santuari, etab.i), bestelako izaki naturaz-gaundikoren bati edo hildakoari lurreko gauzak eskaintzea: opalkuntza edo *oparigintza.

Oparia edo sakrifizioa beronen adiera hertsian zera da: gauzaren bat, animalia

Oparigaiia

bat edo gizakiren bat Jainkoari jabetzan opaltzea, gurtza eta *adorazioaren seinaleztat.

Kristauen artean --ez protestanteen artean-- eukaristia edo *meza da benetako oparria.

* * * *

Erlijiozko sentimendua bizi dutenen Herri edo gizatalde bakoitzeko eta guztietako adierazpide dira erlijiozko opariak. Era oso ezberdinez egikaritu ohi dituzte opariak, kultura ezberdinen arabera. Opari-agerpide anitz eta ezberdin azaltzen dizkigu Bibliak berak, Itun Zaharrak batez ere (Dt 12-26).

Opari guztiak dituzte, ordea, kideko elementuak ere. Hasteko, funts-funtsean *erlijiozikuna da oparria, hori esateko latinetiko hitzak aditzera ematen duenez: sakrifizioa (sacrum facere = sakratu bihurtzea edo Jainkoari zerbait sagaritzea). Era berean, edonolako oparitan zera bilatu ohi da: opari-gaiaren bitartez gizon-emakumeen eta Jainkoaren artean harremana edo elkarbidea lortzea (H. Huber, M. Mauss). Jainkoari eskaintzeko eta sagaratzeko oparigaiak, berriz, izan daitezke: primiziak edo lehen fruituak, animaliak, gizakiak eta edonolako gauza. Ik. Erlijiozko adierazpena; Lehen fruituak.

Tankera ezberdinetakoak izan ohi dira opariak; Itun Zaharrak bertan honako hauek bereizten ditu: odolezko-opariak eta elkar-tasun-opariak, opari salbagarriak, *erreopariak edo erabateko opariak, esker-opariak edo gorespen-opariak eta *bekatuak garbitzeko opariak. Erlijiozikun horiei hainbat zentzu eman ohi diete: Gizon-emakumeen eta Jainkoaren arteko eta gizakien beraien arteko elkarbidea (Dt 12,5 ond.); gizon-emakumeek beren buruak edo beren zerbait Jainkoari eskaintzea (Gn 18,18 ond.); urraturiko *itunaren berritzea (Zenb 15,22 ond.); eta, ondorioz, bekaturen *espiazioa. Oparigaien eskaintzea, espiazioa eta Jainkoarekin harremana edo *elkartasuna berriztatzea opari guztien ezaugarriak dira.

Jesusen jokabideak zentzu berri eta behin-betikoa dakarkio opariari: Itun Berrian garrantzizkoak ez dira gauzen opariak, urrikaltasuna eta *maitasuna baizik (Mt 9,13; 12,7), horietan ematen bait dizkie gizon-emakumeek beste gizalagunei eta Jainkoari beren buruen baitakoena eta sakonena. Horixe izan zen Jesusen gurutzeko opariaren azken-buruko zentzua, bertan bere burua eskaini bait zuen gizon-emakume guztien alde (Mt 26,27). Gurutzekoa izango da, beraz, Itun Berriko opari bakar eta behin-betikoa (Hb 9,12-15; 7,27; 9,12). Bera da benetako odo-

lezko, dohaintzazko (1 Kor 5,7; Erm 3,25) eta *bitartekotzazko oparria (Ef 5,2), behin-betirako gizon-emakumeak Jainkoarekin eta elkarrekin adiskidetzen dituen. Ik. Adiskidetasuna; Urrikimendua.

Euskaldunen ohitura zaharren --neurri batez gero kristaututakoan-- artean, opari-mota asko bildu ditu J.M. Barandiaranek bere Diccionario de Mitología Vasca-ko Oparia artikuluan: katua edo txittoa bizirik lurperatzea, beraien izurriteren bat dagoen; alorrean lanaldiaren ondoren pitxarrean geldituriko ura isurtzea, *libazio edo isur-opari gisa, Gure Aita esatearekin batera; aurraultzeak berotzen ari den oiloaren azpian txanponen bat jartzea; gainezka egiten ari den ibaira *ogi bedeinkatua jaurtitzea.

Oparia loturik dago bereziki hildakoen gurtzapenarekin Euskal Herriko ohitura zaharretan, horiek ere janariaren premia dutela eta sarritan gauzez beren etxera horren bila itzultzen direla uste izan bait dute batzutan euskaldunek. Hiru motatakoak dira bereziki: argizariak, elizako jarleku edo *sepulturaren gainean erretzen direnak; olatak edo hiletakoan elizara eramaten zituzten *ogiak, sepulturaren gainean elizkizunaren garaian ipintzen zituztenak; hildakoaren gauzaren batzu erretzea (koltxoia edo horren ordeko lasto-eskukadaren bat). Animalia jakinen oparia edo eskaintza ere aipatzen du Barandiaranek.

Ik. Oturuntza sakratua; Meza; Jaunaren nekaldia; Oparigaiia; Oparigintza.

Felix Placer Ugarte
Itz.: Paulo Agirrebaltzategi

Oparigaiia

Erljio-fenomenologian, oparitan eskaintzekoa den --edota eskainita dagoen-- edozer edo edonor. Bereziki erabili ohi da biktima hitzaren sinonimotzat, odolezko oparietan.

Kristau-liturgian *mezako oparirako prestaturik dauden gauzei, bereziki sagaratzeko ardo-ogiei deritzate horrela; baina baita fededunek gaixoentzat, pobreentzat, etab.entzat eskaintzen dituzten gauzei ere.

Ik. Oparia; Oparigintza.

Oparigintza

1. Opalkuntza; Eskaintza. Erljiozko hizkera orokorrean, Jainkoari edo jainkozko edozein izakiri gauzaren bat oparitan eskaintzea, eskerrak emateko edo haren ongina-hia irabazteko. Ik. Eskaintza, 1.

2. Berezikiago, *mezako errietoa: oparitako gauzak, eta bereziki sagaratzeko ogi-